


J. DORRONSORO

## **Bertsotan**

(Bi liburuki: 365 eta 499 orrialde)



DORRONSORO, J.,  
1981-1988,  
*Bertsotan*, Donostia:  
Gipuzkoako  
Ikastolen Elkartea.

**Joanito Dorronsoro** (1936- ) da liburu honen egilea. Ataundarra izanik, bere bizialdia batez ere Zumaian eman du, apaiz-langile lanetan, bertako Ikastolan eta bertso-eskolan (1965...).

Horretan ari dela, bertsolaritzaren bi alde nagusiak begiratu ditu, hizkuntzarena eta doinuena.

Ondoko zeregin nagusiak izan ditu bertsoen munduan: bertsolarien albistegi historikoa jasotzea, bertsolaritzaren altxorra bildu eta aurkeztea eta, azkenik, belaunaldi gazteak eskolatzeko lanabes didaktikoak lantzea

*Bertsolaritza oso loturik dago, eta egon da, herritarren euskaltasunaren bizitza sozialarekin, bertsoak batez ere jendartean eta jendearentzat egin izan direlako.*

*Hizkuntzaren ospakizun ludikoa bezain kritikoa izan daiteke bertso-gintza, denboran zehar klase sozial jakin bati edo hainbati loturik ageri zaiguna.*

*Bertsolaritzaren arrakastak hizkuntzaren osasun soziala ere erakusten du bere erara.*

*Obra honetan historialariak hagitz argi erakusten du hori.*

Bertsolaritza euskara mintzatuaren bat-bateko azalpen abestu edo idatzia da, jendaurrean kantatua nahiz bertsopaperetan emana.

Bertsolaritzak herritarren oroimenean lekuko asko utzi du, baina baita gero ondare idatzia gertatu den altxorra ere. Guztiaren lekukoak eta emaitzak bildu ditu liburu honek.

Lehenagoko perla onik falta ez bada ere, bertsolaritzaren historia azken bi mendeetako izan da, Fernando Amezketarrarekin hasita (1800 ingurutik hona).

Dorronsororen liburu honek ekarpen ezberdinak bildu ditu irakurlearen mesedetan:

- Bertsolarien biografia llaburrak.
- Bertsolarien bizitzako zenbait pasadizo.
- Bakoitzaren bertso hautatuen antologiak.
- Hainbat bertsoen inguruabarrak.
- Bertso-irakaskuntzarako aztergaiak.

Liburuan barna, historialariak bertso bakoitza bere doinu hautatu(ar)ekin aurkezten digu, eta eranskinean jasota daude berez kantatzeko izango lirakeen bertso horien doinuak (128).

Bi epetan banatu du idazleak bertsolaritzaren historia: 1) Frantziako Iraultzatik Gerra Zibila artekoa (1789-1936). 2) Azken data horretatik 1980a artekoa.

Hortaz, azken hogeita hamar urteetako garrantzizko gertakariak ez daude bilduta hemen; hala ere, urte haien barruan duen osotasunagatik, eta eskaintzen dituen ikuspuntu ezberdinagatik dakargu hona.

**Gogoan har egile beraren hau ere:**

*Bertso doinutegia*, Elkar, 1995. 2246 or.

[Bertso Doinutegia](#)